



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko uztailaren 3a

84. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, udal titulartasunekoak diren 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroyen finantzaketa arautzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, genero indarkeriarengatik jarritako salaketak erretiratzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da subjektu pasiboekin dituen harremanetan bete egin dezan Europako Batzordeak adierazitako printzipioa, zeinaren arabera, itzulketak egiteko erak ez duen inolako finantza-arriskurik ekarri behar. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat presta dezan, genero indarkeriarekin lotutako faktoreak ezagutze aldera, eta dauden egiturazko arazoak ezagutzeko eta horiei aurre egiteko behar diren baliabide publikoak berma ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiatzen du Garoñako zentral nuklearra berriz irekitzea. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza dezan osorik abian jartzea Emakumeen genitalen ebaketaren aurkako prebentzio eta jardunerako Nafarroako Protokoloan zehaztutako eskuhartze maila guztiak. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua Garoñako zentral nuklearraren berrirekitzearen aurka agertzen da. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontratazioaren arloan lan-, gizarte- eta ingurumen-betebeharrei buruzko klausulan ezar dezan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egiazko berdintasunaren arloko araudi indarduna bete beharra. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Alokairuko Etxebizitzen Parke Publiko bat aktiba eta abian jar dezan, bizileku-arazo larriak dituzten familia- edo bizikidetzta-unitateei zuzendua. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen eta eskertzen du “Gosariak” proiektua bultzatu dutenen lana, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan jantokirako bekak emateko. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuatu egiten ditu kontseilari edo enpresa publikoen kudeatzaile karguetan zeudenek egindako jarduketak; izan ere, interes pribatuen mesedera bideratutako erabakiak hartu zituzten, oihan enpresa batzuei dagokienez. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroako Arartekoaren gomendioa, atzerriko edozein hizkuntzak euskarak baino balorazio handiagorik ez izatekoa Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoan sartzeko deialdietan. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoetako lanpostuak hornitu eta hautatzean emandako kalifikazioen funtsa bermatzen duten jardunbideak ezar ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Gurasoen eta ikasleen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak” izeneko kontusaila exekuta dezan. Mozioa erretiratzea (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPerako urte anitzeko finantzaketa plan bat ezar dezan. Mozioa erretiratzea (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San José zentroko igerilekua konpon dezan. Mozioa erretiratzea (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da izatezko bikoteen erregistro autonomikoa sor dezan. Mozioa erretiratzea (13. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 1/2014 Foru Lege Dekretua, ekainaren 18koa, Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak baliozkotua (14. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

**Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995
Foru Legea aldatzen duena.**

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasu-
nei buruzko martxoaren 10eko 2/1995
Foru Legea aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENA

Krisi ekonomikoko egungo egoeran, zenbait administraziok eta irabazi-asmorik gabeko entitate batzuek akordioak egin dituzte, zeinen bidez titulartasun publikoko etxebizitzak lagatzen baitzaizkie entitate horiei, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen ostatu emateko.

Etxebizitzak egoera txarrean egon ohi dira askotan, eta, horregatik, akordioetan jasotzen da irabazi-asmorik gabeko entitateak behartuta daudela egitera etxebizitza erabiltzeko moduan jartzeko beharrezkoak diren eraberritze-lanak.

Hartara, eta etxebizitzak jabetza publikokoak direnez eta erabilera soziala izanen dutenez, horietan egiten diren eraberritzeek eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga ordaintzetik salbuesita egon behar dute.

Artikulu bakarra. Lerrokada berri bat gehitzen zaio Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 168. artikuluari. Hona testua:

“Halaber, Nafarroako Foru Komunitatearen, Estatuaren edo Nafarroako toki entitateen jabetzako etxebizitzetan egindako edozein eraikin, instalazio edo obra salbuesirik egonen da zerga hau ordaintzetik, baldin eta haiek irabazi-asmorik gabeko entitateei laga bazaizkie zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen laguntzeko”.

Foru Legea, udal titulartasunekoak diren 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroyen finantzaketa arautzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, udal titulartasunekoak diren 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroyen finantzaketa arautzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, udal titulartasunekoak diren 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroyen finantzaketa arautzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza finalisten menpeko zerbitzuen finantzaketan gorabehera etengabeak izaten ari dira udalak; horrenbestez, toki administrazioek zerbitzu horietako asko kentzeko arrisku larria dago gaur egun, finantzaketarik ezagatik.

Estatuko legedia aldatu egin da tokiko eskumenen banaketaren arloan. Aldaketa horiek, eta, batez ere, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea onetsi izanak ez dute lagundu eskumenak finkatzen eta banatzen Nafarroan, eta beharrezkoa izan da, horretarako, xedapen bat sartzea aipatutako lege horretan, Nafarroak Toki Administrazioaren arloan daukan autogobernu ahalmena errespeta dadin.

Hala eta guztiz ere, Nafarroan oraindik ere badira Nafarroako Gobernuaren berezko eskumen asko, udalek beren gain hartuak eta bi administrazioek elkarrekin finantzatuak, halako zehaztugabe-

tasuneko egoeran jarraitzen dutenak, zeren eta haien gauzatzea eta finantzaketa ez baitira behar bezala eta gaurkotasunez erregulatu. Horien artean dago, agerikoa den bezala, 3 urtera arteko haur hezkuntzari dagokiona.

Zalantzazko egoera hori behin-behinekoz erregulatzeko, etengabe arazoak sortzen baitizkie ardura duten udalei, eta Nafarroak toki entitateei eskuordetutako eskumenen finantzaketa finkatzeko behin betiko legedi berria lortzen ez duen bitartean, beharrezkoa da haur hezkuntzako 0-3 urteko zikloa finantzatzeko gutxieneko legedi bat onartzea.

Artikulu bakarra. Nafarroako Gobernuak bera-ri dagokion zatiaren ehuneko ehun ordainduko die udalei ekitaldi ekonomiko bakoitzean, Udal titulartasuneko haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeari buruzko Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduak ezartzen dituen oinarrietan xedatuarekin bat.

Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako Gobernuari ematen zaio foru lege hau garatzeko ardura.

Xedapen indargabetzailea. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak. Zehazki, indargabetuta uzten da Hezkuntzako kontseilariak abuztuaren 27an emandako 79/2012 Foru Aginduaren hirugarren xedapen iragankorra, zeina Hezkuntzako kontseilariak uztailaren 5ean emandako 64/2013 Foru Aginduaren bidez gehitu baitzen.

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, genero indarkeriarengatik jarritako salaketak erretiratzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, genero indarkeriarengatik jarritako salaketak erretiratzeari buruzkoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Diziplina anitzeko azterlan bat egitera, azter-tze aldera zer arrazoi zehatz egon litezkeen Nafarroan erretiratutako salaketen kopurua hain handia izateko.

2. Azterlanaren ondorioak jasotzera generoko indarkeriari buruzko foru lege berria eta arloari buruzko plan estrategikoa taxutzeko prozesuan.

3. Azterlanaren ondorioak ikusita, generoko indarkeriaren biktimei laguntze aldera Nafarroan aplikatzen den jarduketa koordinatuaren protokoloa berrikustera, kasua bada."

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da subjektu pasiboekin dituen harremanetan bete egin dezan Europako Batzordeak adierazitako printzipioa, zeinaren arabera, itzulketak egiteko erak ez duen inolako finantza-arriskurik ekarri behar.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da subjektu pasiboekin dituen harremanetan bete egin dezan Europako Batzordeak adierazitako printzipioa, zeinaren arabera, itzulketak egiteko erak ez duen inolako finantza-arriskurik ekarri behar."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, legezketasuna hertsiki beteko dela jakintzat hartuz, subjektu pasiboekin dituen harremanetan bete egin dezan Europako Batzordeak adierazitako printzipioa, zeinaren arabera, itzulketak egiteko erak ez dien inolako finantza-arriskurik ekarri behar subjektu pasiboek, pertsona fisikoak zein juridikoak izan."

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat presta dezan, genero indarkeriarekin lotutako faktoreak ezagutze aldera, eta dauden egiturazko arrazoiak ezagutzeko eta horiei aurre egiteko behar diren baliabide publikoak berma ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat presta dezan, genero indarkeriarekin lotutako faktoreak ezagutze aldera, eta dauden egiturazko arrazoiak ezagutzeko eta horiei aurre egiteko behar diren baliabide publikoak berma ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Azterlan enpiriko bat egin dezan, zehaztasun handiagoarekin ezagutu ahal izateko generoko indarkeriarekin zerikusia duten faktoreak; besteak beste, zer arrazoi egon daitekeen aurkeztutako salaketak erretiratzearen atzean, zer jarrera eduki ohi den nerabezaroan, zer eragin izan dezaketen gizarte-sareek, eta diagnosi hobea egiten lagun dezakeen beste edozein faktore, generoko indar-

keria arian-arian desagerrarazteko neurririk egokienak taxutzeko.

2. Gaitz horren egiturazko arrazoiak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko beharrezkoak diren baliabide publikoak berma ditzan, generoko indarkeriaren aurka borrokatzeko eta prebenitzeko baliabide eta zerbitzu espezializatuak eta legegintza arloko neurriak ezartzea ahalbidetuko duten aurrekontu-zuzkidura bermatuz.

3. Ezartzen ahal diren neurriak azter eta har ditzan, laguntza eta babes sarea baliatu ahal izateko ez dadin beharrezkoa izan salaketa bat paratzea.

4. Generoko indarkeriaren aurkako borrokaren eta berdintasunaren arloko prestakuntza sustatzea egoera hori bizi duten emakumeak artatu behar dituzten profesionalen artean.

5. Generoko indarkeriaren aurkako borrokaren eta berdintasunaren arloko hezkuntza-programak sendotu ditzan."

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiatzen du Garoñako zentral nuklearra berriz irekitzea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiatzen du Garoñako zentral nuklearra berriz irekitzea".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiatzen du Garoñako zentral nuklearra berriz irekitzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta haren Industria, Energia eta Turismo Ministroa premiatzen ditu ez dezaten baimendu Garoñako zentral nuklearra berriz ere irekitzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du errotik alda dezan bere energia-politika, politika iraunkorrak ezarrita, lehentasuna emanez energia aurrezteari eta energia-iturri berriztagarri eta ekologikoak erabiltzeari."

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza dezan osorik abian jartzea Emakumeen genitalen ebaketaren aurkako prebentzio eta jardunerako Nafarroako Protokoloan zehaztutako esku-hartze maila guztiak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza dezan osorik abian jartzea Emakumeen genitalen ebaketaren aurkako prebentzio eta jardunerako Nafarroako Protokoloan zehaztutako esku-hartze maila guztiak”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bultza dezan protokoloan zehaztutako esku-hartze maila guztiak osorik abian jartzea, eta bultza dezan, halaber, Emakumeen genitalen ebaketaren aurkako prebentzio eta jardunerako Nafarroako Protokoloan jasotako departamentuarterko batzordea aurten sortzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arlo horretan jarduteko egutegi zehatz bat presta dezan, 2014 eta 2015erako.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Emakumeen genitalen ebaketaren aurkako prebentzio eta jardunerako Nafarroako Protokoloaren ezarpen erreal eta eraginkorra ahalbidetuko duen aurrekontu-esleipen proportzional eta egokia egin dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak Justizia Unibertsalaren Legearen aldaketa arbuiatzen du, eta Espainiako Gobernua premiatzen du aipatu aldaketa hori indargabetu dezan; izan ere, besteak beste, gure lurraldean bizi diren neskatoei Estatu-kanpo egindako ebaketen jazarpena desageraraz dezake, eta egungo legediak daukan disuasio-efektua galtzea ekarriko du.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Indarkeria Matxistaren aurkako Lege berria taxutzean emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria-mota gisa jaso dezan emakumeen genitalen ebaketa; izan ere, haien oinarritzko eskubideak urratzen ditu –esaterako, osotasun fisikorako eskubidea–, eta ondorio larriak dakartza osasunerako –bai fisikorako, bai psikikorako–, heriotza eragiteraino hel bai taiteke.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nazioarterko lankidetzaren aurrekontuan zenbateko egoki eta proportzionalak jaso ditzan, jatorrizko herrialdeetan sentibilizaziorako, prestakuntza emateko eta giza eskubideen urraketa-egoera guztiak ekiditeko politikak garatze aldera.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du politika horiek Lankidetzarako Plan Estrategikoan jaso daitezen.”

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua Garoñako zentral nuklearraren berrirekitzearen aurka agertzen da.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua Garoñako zentral nuklearraren berrirekitzearen aurka agertzen da”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du zentral nuklearraren bizitza luzatzearen aurka

dagoela; izan ere, hogeita hamar urteko balio-bizitza izateko zegoen pentsatuta, eta berrogei urtez funtzionatu du. Hori dela-eta, erabat amortizatuta dago, eta ez dago bere segurtasuna bermatzen duen inolako txostenik.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ez dezan lizentzia berririk eman Santa María de Garoñako zentral nuklearraren instalazioak berrirekitzeko”

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontratazioaren arloan lan-, gizarte- eta ingurumen-betebeharrei buruzko klausulan ezar dezan gizona eta emakumezkoen arteko egiazko berdintasunaren arloko araudi indarduna bete beharra.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontratazioaren arloan lan-, gizarte- eta ingurumen-betebeharrei buruzko klausulan ezar dezan gizona eta emakumezkoen arteko egiazko berdintasunaren arloko araudi indarduna bete beharra. Erabakia heldu da Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen mozio batetik, zeina 2014ko ekainaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du administrazio klausula partikularren orrietako lan-, gizarte- eta inguru-

men-betebeharrei buruzko klausulan ezar dezan, kontratazioaren arloan dituen eskumenen esparruan, kontratistak gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasunaren arloko araudi indarduna bete beharra, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-, gizarte- eta ingurumen-betebeharrei buruzko aipatu klausuletan halaber ezar dezan kontratistak bete behar duela Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea, zeinak ezartzen baitu 50 langile baino gehiagoko enpresa publiko zein pribatuek ezgaitasuna duten langileak kontratatu behar dituztela eta haien kopurua ez dela ehuneko 2 baino gutxiagokoa izanen”

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Alokairuko Etxebizitzen Parke Publiko bat aktiba eta abian jar dezan, bizileku-arazo larriak dituzten familia- edo bizikidetza-unitateei zuzendua.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Alokairuko Etxebizitzen Parke Publiko bat aktiba eta abian jar dezan, bizileku-arazo larriak dituzten familia- edo bizikidetza-unitateei zuzendua.” Erabakia heldu da Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu zuten mozio batetik, zeina 2014ko ekainaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio alokairuko etxebizitzen parke publiko bat aktiba eta abian jar dezan, etxegabetze baten, ordainetan emate baten edo gisako negozio juridiko baten ondorioz bizileku-arazo larriak dituzten familia- edo bizikidetza-unitateei zuzendua, bai eta beren dirusarrerak direla-eta alokairu babestuko etxebizitza eskuratzetik ez dutenei ere. Hartara, Nafarroako Gobernuari premiaz eman diezaien alokairuko etxebizitzara zuzendutako inbertsio publikoari, eta ez salerosketarako etxebizitza, etxebizitza sozialeko parke publiko hori eratu eta bultzatzeko.

2. Halaber, izanen dira alokairu sozialeko etxebizitzak hartzaile, 1. puntuan aipatutako pertsonen gain, honako hauek: gazteak, mugikortasun urriko pertsonak, banandukoak edo dibortziatuak, langabeak eta bankuek etxebizitzak erosteko mailegurik eman ez dieten pertsonak, baldin eta erosteko eskubidea duen alokairu bat sinatzeko moduan badaude.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio etxebizitza sozialeko parke publiko horren arau-garapena egin dezan,

zeinean, besteak beste, honako hauek ezarriko baititu:

a. Ordaindu beharreko hileroko alokairu-kuota ezartzeko baremoa, kuota hori familia-unitatearen edo bizikidetza-unitatearen diru-sarreraren arabera izan dadin. Kuota horrek ezin du behartu egunean pertsona bakoitzeko 6 euro baino gutxiagorekin bizitzera, alokairua eta etxebizitza-erabileraren gastu aurreikusgarriak kenduta.

b. Ahalmen ekonomikoa justifikatzeko exijitzen den dokumentazioa egungo errentari dagokiona izatea; hartara, eskabidea aurkeztu aurreko hiru hilabeteetako diru-sarreraren egiaztagiria eskatuko dira (nominak, ziurtagiriak eta abar).

c. Bakarrik hilabeteko alokairu-kuotari dagokion fidantza eskatzea etxebizitza eskuratzeko berme ekonomiko gisa. Gizarte Zerbitzuek baloratu dute zer kasutan salbuetsi betebeharrak horretatik.

d. Familia-unitatearen edo bizikidetza-unitatearen gutxienezko dirusarrera-muga bat ez jartzeko alokairu sozialeko etxebizitza horiek eskuratzeko.

e. Gizarte Zerbitzuek baloratutako bizileku-arazo larriko kasuetan izan ezik, etxebizitza horiek eskuratu ahal izateko diru-sarrera ponderatuak –familia-unitatearenak edo bizikidetza-unitatearenak– ez dira izanen IPREM-ondorio anizkoitzeko errenten adierazle publikoaren halako 1,4 baino handiagoak.

4. Nafarroako Parlamentuak alokairu sozialaren enpresa kudeatzaile batzuen abusuzko jokabidea salatzen du; izan ere, Hiri-errentamenduei buruzko Legean lehentasunez ezarritakoaren aurka, maizterrari ari zaizkio kargatzen hiri-kontribuzioaren gaineko udal zerga.”

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen eta eskertzen du “Gosariak” proiektua bultzatu dutenen lana, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan jantokirako beka emateko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen eta eskertzen du “Gosariak” proiektua bultzatu dutenen lana, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan jantokirako beka emateko” Erabakia heldu da Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko Patxi Leuzá García jaunak aurkeztu zuten mozio batetik, zeina 2014ko ekainaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen eta eskertzen du “Gosariak” proiektuaren bultzatzaileak egiten ari diren lana, eta uste du administrazio publikoei dagokiela ikasleen oinarriko beharrezkoak asetzeko behar diren baliabideak detektatzea eta taxutzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekainean egin dezan eskolako jantokirako beka aurreikuspena, irailean ordainduko direla bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan, udaletan jantokirako beka emateko irizpideak batera daitezten.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familiek ordaindu behar duten gutxieneko kuota jaitz dezan, egiaztatuta baitago zenbait neska-mutikok ez dutela jantoki zerbitzurik erabiltzen beren familiek ezin dutelako gutxieneko kuota ordaindu, nahiz eta beka bat eduki.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak taxutu ditzan, jantokirako beka ekaineko eta irailako eskolaldi trinkoak ere har ditzaten, eta ez soilik eskolaldi zatituko egunak, bai eta ikasturteko asteazken guztiak ere.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntza Departamentuko Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalaren “Fruten Programa” egokitu dezan, halako moduan non hiru egunetik bost eguneko izatera igaroko baita, ikasturte osoan egiten baita eta Lehen Hezkuntzara hedatuko baita.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du udalekin koordina dadin eta tresna egokiak ezar ditzan udako oportetako hila-beteetan adingabeen beharrezkoak asetzeko; gutxienez ere “Gosariak” programan parte hartu duten 146 neska-mutikoenak. Horretarako, ekimenaren bultzatzaileekin harremanetan jarriko da lehenbailehen.”

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu kontseilari edo enpresa publikoen kudeatzaile karguetan zeudenek egindako jarduketak; izan ere, interes pribatuen mesedera bideratutako erabakiak hartu zituzten, oihan enpresa batzuei dagokienez.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu kontseilari edo enpresa publikoen kudeatzaile karguetan zeudenek egindako jarduketak; izan ere, interes pribatuen mesedera bideratutako erabakiak hartu zituzten, oihan enpresa batzuei dagokienez."

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2014ko apirilaren 30eko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroako Arartekoaren gomendioa, atzerriko edozein hizkuntzak euskarak baino balorazio handiagorik ez izatekoa Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoan sartzeko deialdietan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroako Arartekoaren gomendioa, atzerriko edozein hizkuntzak euskarak baino balorazio handiagorik ez izatekoa Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoan sartzeko deialdietan."

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoetako lanpostuak hornitu eta hautatzean emandako kalifikazioen funtsa bermatzen duten jardunbideak ezar ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nekane Pérez Irazabal andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoetako lanpostuak hornitu eta hautatzean emandako kalifikazioen funtsa bermatzen duten jardunbideak ezar ditzan."

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2014ko ekainaren 24ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Gurasoen eta ikasleen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak” izeneko kontusaila exekuta dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Pedro Rascón Macías jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez, zeina 2014ko apirilaren 11ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, Nafarroako

Gobernua premiatzen zen “Gurasoen eta ikasleen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak” izeneko kontusaila exekuta zezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPerako urte anitzeko finantzaketa plan bat ezar dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez, zeina 2014ko apirilaren 30eko 59. Nafarroako Parlamentuko

Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, Nafarroako Gobernua premiatzen zen NUPerako urte anitzeko finantzaketa plan bat ezar zezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San José zentroko igerilekua konpon dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez, zeina 2014ko maiatzaren 16ko 64.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, Nafarroako Gobernua premiatzen zen San José zentroko igerilekua konpon zezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da izatezko bikoteen erregistro autonomikoa sor dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 26an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez, zeina 2014ko maiatzaren 23ko 68. Nafarroako Parlamentuko

Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, Nafarroako Gobernua premiatzen zen izatezko bikoteen erregistro autonomikoa sor zezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2014 Foru Lege Dekretua, ekainaren 18koa, Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK BALIOZKOTUA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, baliozkotu zuen 1/2014 Foru Lege Dekretua, ekainaren 18koa, Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legea aldatzen duena. Foru lege dekretu hori 2014ko ekainaren 19ko 119. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2014ko ekainaren 24ko

79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

